



Arrankudiagako Udala  
Bizkaia

**ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA ARLOKO LAGUNTZA TEKNIKOAREN  
LOTUTAKO ZERBITZUEN KONTRATUA ARAUTUKO DUTEN  
BALDINTZA ADMINISTRATIBO ZEHATZEN AGIRIA: UDAL ARKI-  
TEKTO AHOLKULARI BATEN ZERBITZUAK. PROZEDURA IREKI  
SINPLIFIKATUAREN BIDEZ ESLEITZEKO.**

I.- KONTRATUAREN ELEMENTUAK. ALDERDI OROKORRAK ETA KONTRATUAREN KONFIGURAZIOA.

1. KONTRATUAREN XEDEA.
2. KONTRATATZEKO BEHARRIZANAREN JUSTIFIKAZIOA.
3. EGIKARITZEKO EPEA.
4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA.
5. FINANTZIAZIOA ETA ADMINISTRAZIOAK PRESTAZIOAK BETETZEA.
6. PREZIOAK BERRIKUSTEA.
7. BERMEAK.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA.

8. ESLEITZEKO PROZEDURA.
9. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA.
10. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK.
11. KONTRATATZEKO GAITASUNA.
12. KAUDIMENA.
13. ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK.
14. KONTRATAZIO-MAHAIA.
15. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK, ETA BALDINTZA-AGIRIAK ESKURAGARRI IZATEA.
16. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA.
17. TXOSTEN TEKNIKOAK.
18. KONTRATISTA AUKERATZEA ETA LIZITAZIOA.

19. BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK.
20. KONTRATUA BURUTU ETA FORMALIZATZEA.

### III.- KONTRATUA GAUZATZEA.

21. KONTRATUAREN ARDURADUNA.
22. KONTRATU-BETEBEHARRAREN ERAGIN JURIDIKOAK.
23. KONTRATUAREN EGIKARITZE-BALDINTZAK.
24. KONTRATUA ALDATZEA.
25. ORDAINKETAK.
26. ZIGORRAK.
27. KONTRATUA BALIOGABETZEA.
28. KONTRATUA SUNTSITZEA.
29. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA.
30. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK.
31. JURISDIKZIO ESKUDUNA.



**Arrankudiagako Udala**  
**Bizkaia**

## I.- KONTRATUAREN ELEMENTUAK. ALDERDI OROKORRAK ETA KONTRATUAREN KONFIGURAZIOA

### 1. KONTRATUAREN XEDEA.-

BALDINTZA-AGIRI honen xedea da Arrankudiaga eta Zollo udalerrirako arkitektura eta hirigintza arloko aholkularitza teknikoarekin lotutako zerbitzu-kontratua prozedura ireki erraztu bidez kontratatzea, administrazio-klausula zehatzen agiri honetan aurreikusitako baldintzetan eta baldintza teknikoen agiriko zehaztapenekin bat etorritz, eta biek kontratuaren lege-izaera dutela.

Hona hemen kodifikazioa:

CPV 71410000-5: Hirigintza-zerbitzuak, eta

CPV 71210000-3: Arkitektura arloko aholkularitza-zerbitzuak.

### 2. KONTRATATZEKO BEHARRIZANAREN JUSTIFIKAZIOA.-

Espedientean jasota dago administrazio honek zergatik egin duen baldintza-agiri honetan aipatzen den kontratua.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28. artikuluan xedatutakoaren arabera -Lege horren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantzean, SPKL)-, eta espedientean dagoen dokumentazioan justifikatzen denez, kontratua beharrezkoa da helburu hori betetzeko, eta haren xedea eta edukia egokiak dira identifikatutako beharrianak asetzeko. Hori guztia, kontuan hartuta Arrankudiagako eta Zolloko udalak ez duela gaitasunik zerbitzu horiek emateko baliabide propioak izateko.

### 3. EGIKARITZEKO EPEA.-

Kontratuaren iraupena, guztira, lau (4) urtekoa izango da kontratua sinatzen denetik, eta ezin izango da luzapenik egin.

Kontratua gauzatzeko epea kontratua formalizatu eta hurrengo egunean hasiko da. Kontratista berandutze-egoeran dagoela ulertuko da aipatutako epea igaro eta prestazioa hasi ez bada, eta, horretarako, ez da beharrezkoa izango Administrazioak alde aurretik ohartaraztea.

#### 4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA.-

4.1. Lizitazioaren aurrekontua 96.800 eurokoa da, 24.200 eurotan banakatuta kontratua gauzatzen den urte bakoitzeko. Horiei 20.328 euro gehitu behar zaizkie, BEZari dagozkionak. Ondorioz, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua, guztira (BEZ barne), 117.128 eurokoa da. Lizitatzailleek aurrekontua hobetu dezakete.

Beraz, alderdi lizitatzailleek urteko 24.200 euroko (29.282 euro, BEZ barne) lizitazio-prezioaren gainean aurkeztu beharko dituzte eskaintzak, kontratutik eratorritako prestazioak egiteko. Zenbateko hori beheranzko bidean hobetu ahal izango dute lizitatzailleek.

Legear aurreikusitako ondorioetarako, publizitateari eta kontratua esleitzeko moduei dagokienez, kontratuaren balio zenbatetsia 96.800 €-koa izango dela aurreikusi da.

Lizitazioaren aurrekontua kontratuaren lizitazioan parte hartzen duten enpresek gehienez eskain dezaketen zenbatekoa da. Zenbateko hori gainditzen duen edozein proposamen baztertuko da.

4.2. Lizitatzailleek beren zerbitzuen kostua baloratu beharko dute, deialdia osatzen duten dokumentuetan ezarritako irismenaren eta baldintzen arabera, eta kontuan hartu beharko dute prezioa finkoa izango dela eta ezingo dela berrikusi kontratua gauzatzen den bitartean.

4.3. Ondorio guztietarako, aurkeztutako eskaintzetan esleipendunak kontratatutako prestazioak betetzeko egin behar dituen gastu guztiak sartuko dira, hala nola gastu orokorrak, finantzarioak, etekinak, aseguruak, garraioak, dietak eta joan-etorriak, teknikarien ordainsariak, egiaztapenak eta saiakuntzak, tasak, ikus-onespenak, ziurtagiriak ematea eta era guztietako zergak, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) barne.

Lizitatzailleak, baldintza-agiri hauen 1. ERANSKINaren arabera aurkeztu beharko du eskaintza ekonomikoa.

#### 5. FINANTZIAZIOA ETA ADMINISTRAZIOAK PRESTAZIOAK BETETZEA.-

Kontratuak indarrean jarraitzen duen ekitaldietako aurrekontuetan kontratutik sortzen diren ordainketei aurre egiteko behar besteko kontsignazioa egotearen baldintzapean geratuko dira kontratuaren betebeharrak ekonomikoa; hain zuzen ere honako Aurrekontu



**Arrankudiagako Udala  
Bizkaia**

Partida honetan: 1.5.0.4 Bulego teknikoa programako, 22707 Lan eta Azterketa Teknikoak kapitulua.

Urte anitzeko gastua denez, baimendu eta konprometitu diren ekitaldietara hedatzen ditu ondorio ekonomikoak, eta, beraz, ekitaldi bakoitzerako aurrekontuetan esleitutako kredituaren mende egongo da urte anitzeko gastuen baimena eta konpromisoa.

SPKLren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren arabera, eta dagozkion fakturretan jasota gera dadin, kontabilitate publikoaren arloan eskumenak dituen administrazio-organoa udal kontu-hartzailletza dela adierazten da, kontratazio organoa alkatetza dela, eta, xede unitatea idazkaritza/kontu-hartzailletza dela.

#### 6. PREZIOAK BERRIKUSTEA.-

Kontratu honen iraupena dela eta, EZ dago prezioak berrikusterik.

#### 7. BERMEAK.-

Kontratuaren adjudikazioduna esleipenaren zenbatekoaren %5aren parekidea den, BEZ kenduta, behin betiko bermea eratzera behartuta dago, hartutako betebeharrak betetzen dituela bermatu asmoz.

Berme hori jartzeko epea 7 egun balioudunekoa izango da, esleitzeko proposatutako eskaintza izateagatik errekerimendua jasotzen duen egunetik kontaktzen hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, SPKLren 108 artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke. Bermearen eraketa bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoen bidez egiaztatu ahal izango da. Baldintza hau lizitatzaileriari egotzi ahal zaikion arrazoiengatik bete ezean, Administrazioak ez du bere aldeko esleipenik egingo.

Kontratua aldatzen delako prezioa ere aldatzen bada, bermearen kopurua doitu egin beharko da, prezio berriarenganako proportzio egokia mantentzeko. Horretarako, hamabost eguneko epea egongo da enpresaburuari aldaketa-erabakia jakinarazten zaionetik aurrera.

Sektore Publikoko Kontratuan azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 111 artikuluan xedatutakoaren arabera itzuli edo indargabetuko da bermea, bermearen epea gaintitu eta esleipendunak bere kontratu-betebehar guztiak bete ostean.

## II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

### 8. ESLEITZEKO PROZEDURA.-

Kontratu hau prozedura ireki sinplifikatu bidez esleituko da, SPKLren 159. artikuluko 1. paragrafotik 5. paragrafora arte aurreikusitakoarekin bat etorritz. Lege horretan eta lege hori garatzeko arauetan jasotako jarduketak jarraituz izapidetuko da.

Kontratuko jarduerari buruzko informazioaren gardentasuna eta sarbide publikoa bermatze aldera, eta beste publizitate-bitarteko batzuk erabiltzeari kalterik egin barik, Udalak honako web orri honetan arautzen diren zehaztapenen arabera sarbidea izango duen Kontratugilearen Profila du: [www.arrankudiaga.org](http://www.arrankudiaga.org)

### 9. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA.-

Izapide hau bitarteko elektronikoak erabiliz izapidetuko da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoa jarraituz. Ondorioz, Udalaren eta lizitatzailoeren arteko haremanetan ere bitarteko horiek erabiltzea lehenetsiko da.

### 10. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK.-

Espediente honi dagozkion jakinarazpen eta komunikazio guztiak elektronikoki egingo dira, honako prozesu hau jarraituz:

1.) Hartzailearen eskura jarri.

2.) Jakinarazpen edo komunikazioaren edukia eskura izan.

Epeak jakinarazten diren unetik hasiko dira zenbatzen (jakinarazpenaren xede den egintza kontratatzailearen profilean argitaratzen bada), edo jakinarazpena jasoten denetik (egintza ez bada egun berean kontratatzailearen profilean argitaratzen).

Jakinarazpena eskura jartzen den egunetik hamar (10) egun naturaleko epea igarota, hartzaileak onartzen ez badu edo errefusatzen badu, amaitutzat joko da eta jakinarazpena egiteko izapidea formalki betetzat joko da.

Hala ere, ahozko komunikazioa erabili ahal izango da SPKLren Hamabosgarren Xedapen Gehigarrian araututako kasuetan.

### 11. KONTRATATZEKO GAITASUNA.-

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-prozedura honetan, baldin eta beren kaudimena eta



**Arrankudiagako Udala**  
**Bizkaia**

fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, SPKLren 71. artikuluan adierazitako arrazoiak direla-eta.

Era berean, beraien kabuz edo baimendutako pertsona batek ordezkatuta egin ahalko dute, helburu horrekin emandako behar besteko ahalorde bidez. Pertsona juridiko baten ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Pertsona juridikoak diren enpresaburuek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte, dagokien proposamena aurkezten dutenean:

- Eratze- eta/edo ahalordetze-eskitura eta estatutu sozialak, bai eta, hala badagokio, horien aldaketak ere, Merkataritza Erregistroan inskribatutakoak, baldin eta aplikatzekoa zaion merkataritza-legeriaren arabera betekizun hori eska badaiteke. Hala ez bada, eratze-eskitura edo -agiria, aldarazpen-eskitura, estatutuak edo sortze-egintza aurkeztu beharko dira, jarduera arautzen duten arauak jasota, eta, hala denean, kasuan kasuko erregistro ofizialean inskribatuta.
- Nortasun Fiskaleko Txartelaren kopia kautotua.
- Proposamenaren sinatzailearen ordezkari-tza-ahalmenak behar bezala egiaztatzen dituen agiria.
- Europar Batasuneko estatu kideetako enpresa ez espainiarrek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute HAKLren Erregelamendu Orokorren 1. eranskinean adierazten diren erregistro profesional edo komertzialetako batean inskribatuta daudela egiaztatzen duen ziurtagiriaren bidez.
- Europako Erkidegokoak ez diren atzerriko enpresen kasuan, SPKLren 68. artikuluan eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta dituela egiaztatzen duten agiriak.

Banakako enpresarioa bada, Nortasun Agiri Nazionalaren bitartez.

Pertsona horiek enpresa gaikuntza edo gaikuntza profesionala izan beharko dute, hala badagokio, kontratuaren xedea den jarduera edo prestazioa gauzatzeko eska daitekeena. Lotura zuzena egon behar da beren jardueren, helburuen edo eginkizunen eta esleipenaren xedearen artean, betiere estatutuetan edo sorrerako arauetan

ezarritakoaren arabera, eta kontratua behar bezala gauzatzeko behar adina giza baliabide eta baliabide material dituen antolaketa bat izan behar dute.

## 12. KAUDIMENA.-

### 12.1 EKONOMIKO FINANTZARIOA.

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa arrisku profesionalengatiko kalte-ordainen aseguru baten bidez egiaztatuko da. Aseguru hori eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte egongo da indarrean, 150.000 euroko zenbatekoarekin, eta, gainera, asegurua berritzeko edo luzatzeko konpromisoa hartuko da, kontratua gauzatzen den bitartean estaldura mantenduko dela bermatzeko. Lizitatzailerak edo hautagaiak baldintza hori betetzen duela ulertuko da, baldin eta bere eskaintzan eskatzen den asegurua sinatzeko konpromiso lotesle bat jasotzen bada, esleipenduna izanez gero. Konpromiso hori SPKLren 150. artikulua 2. zenbakian aipatzen den hamar egun balioduneko epearen barruan gauzatu beharko da.

Baldintza hori aseguratzailerak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da -ziurtagiri horretan aseguraturako zenbatekoak eta arriskuak eta asegurua epemuga jasoko dira-, bai eta asegurua sinatzeko, luzatzeko edo berritzeko konpromiso loteslearen agiriaren bidez ere.

### 12.2 TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Bitarteko hauek guztiak egiaztatu beharko dira:

- Azken bost urteetan hirigintzako arkitekto aholkulari gisa beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin sinatutako kontratuen zerrenda, emandako zerbitzuak egiaztatzen dituzten ziurtagiriekin batera.

5.000 biztanletik beherako udalerrietan hirigintza-aholkularitzako arkitekto gisa zerbitzuak egin dituztela egiaztatzen duten profesional lizitatzailerak proposamenak onartuko dira, baldin eta urteko zenbateko metatua, exekuzio handieneko urtean, 24.200 eurokoa edo handiagoa bada.

- Goi-mailako arkitektoaren titulazioa eta Arkitektoen Elkargo Ofizialean elkargokide izatearen ziurtagiria.

- Euskara: Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C-2 mailako titulazioa, eta euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeari buruzko 297/2010 Dekretuaren arabera pareka daitezkeen titulazio ofizialak. Aurkeztutako eskaintzetako batek ere ez bada baldintza hori betetzen, C-1 edo titulu baliokidea onartuko da.





Arrankudiagako Udala  
Bizkaia

### 13. ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK.-

Honako hauek dira kontratua esleitzeko oinarritzat hartuko diren eskaintzak baloratzeko irizpideak eta izango duten ponderazioa:

**A) BALORAZIO TEKNIKODUN IRIZPIDEAK:** (Balio-judizio baten mendekoak dira, eta balioespen automatikoa dutenen aurretik baloratuko dira. **25 puntu** arte). Atal honetan proposamenak gutxienez 15 puntu lortu beharko ditu.

#### **Memoria teknikoa, 25 puntura arte.**

Udalerrian indarrean dagoen plangintzaren azterketa: (15 puntura arte)

Indarrean dagoen hirigintzako udal-plangintza aztertzen duen memoria bat izango du. Indarrean dauden Arau Subsidiarioen garapena, arau horiek hirigintzako eta lurralde-antolamenduko indarreko araudira egokitzea, arau horiek garatzeko edo berrikusteko gaitasuna eta/edo aukera aztertuko da, etxebizitzaren eremua berariaz aztertuz eta epe ertain/luzera begira hirigintzako erronka handiak nabarmenduz. Azterketa horrek ezingo ditu 10 orrialde baino gehiago izan, alde bakar batetik idatzita, eta A4 formatuan aurkeztu beharko da.

Metodologia, antolaketa, deskribapena eta lan-prozedura: (10 puntura arte)

Presentziazko eta ez-presentziazko lan egiteko moduaren deskribapena jasoko du, Baldintza Tekniko Partikularren Agirian ezartzen diren eginkizunetarako egin nahi den dedikazioa ezarriz, eta egunerokotasunean kontsultak aztertzearekin eta hirigintzako lizentziak ematearekin uztartuz. Agiri horrek ezingo ditu 5 orrialde baino gehiago izan, alde bakar batetik idatzita, eta A4 formatuan.

#### **B) MODU AUTOMATIKOAN KUANTIFIKAGARRIAK DIREN BALORAZIO-IRIZPIDEAK:** (Guztira **75 puntu** arte).

- Eskaintza ekonomikoa: (45 puntura arte).

Puntuak hiruko erregela alderantziz ezarrita emango dira; eskaintzarik onenak puntuazio gorena lortuko du eta gainerako eskaintzek proportzionalki dagokiena, honako formula hau aplikatuz:

Baloratzekoa den Eskaintzaren Puntuazioa= $((M-E)/(M-B))*45$

Mota=M

Baloratzekoa den Eskaintza=E

Eskaintza Baxuena=B

SPKLren 149. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, kontratazio-mahaiak anormaltasun-presuntzioa duen eskaintzat hartuko du lizitatuak bakar batek parte hartu eta lizitazio-aurrekontua baino ehuneko 20 unitate txikiagoa dena. 2 lizitatuak edo gehiagoren kasuan, aurkeztutako eskaintzen batez bestekoaren % 10etik behera egotea.

- Prestakuntza: (10 puntura arte).

- Deialdian eskatutakoa baino goragoko titulazio ofiziala (doktoretza, masterra, diplomak, espezialitateak...): (2 puntu titulazio bakoitzeko eta 4 gehienez).

- Planeamendu, kudeaketa, hirigintza diziplina, jardura sailkatuak, lurraldearen antolamendua eta ingurumenarekin zerikusia duten ikastaroak (0,5 puntu gutxienez 40 orduko ikastaro bakoitzeko), gehienez ere 6 puntu.

Ordu kopurua eta/edo ikastaroa eman duen erakundea adierazten ez duten ikastaroei ez zaie punturik emango.

- Lanbide-esperientzia: (15 puntura arte).

Toki Administrazioan udal arkitekto aholkulari urbanista gisa izandako esperientzia: puntu bat 5.000 biztanletik beherako toki entitateetan egindako urte oso bakoitzeko, 0,5 puntu biztanle gehien dituzten toki entitateetan urte oso bakoitzeko. (zatikiak ez dira puntuatuko). Gehienez ere 15 puntu emango dira.

- Hobekuntzak: (5 puntura arte).

Puntu 1, Baldintza Teknikoen Agirian ezarritako orduz gain, bilerak, proiektu espezifikoen analisiak, bisitak eta abar egiteko eskaintzen den bi ordu gehiagoko lanordu presentzial bakoitzeko. Proposamenean orduak eta ordu horiek zein kontzeptupean eskaintzen diren zehaztu beharko da.

#### 14. KONTRATAZIO-MAHAIA.-

Kontratazio-Mahaia honako kide hauek osatuko dute:

Mahaiburua: Alkatetza.

Idazkaritza: Idazkaritza/Kontu-hartzaitza

Mahaikidea: Langile lan-kontratuduna.

SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 7. atalean ezarritako lege xedapenen arabera eraturitako Kontratazio Mahaia. Kontratazio-mahaiak mahaiburu bat, mahaikide bat eta idazkari bat izango ditu.



**Arrankudiagako Udala**  
**Bizkaia**

**15. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK, ETA BALDINTZA-AGIRIAK ESKURAGARRI IZATEA.-**

Lizitazio hau Udal honen kontratatzailearen profileen iragarriko da, Kontratazio Publikoa Euskadin izeneko Plataforman dagoena.

Proposamenak aipatutako plataformaren bitartez elektronikoki aurkeztuko dira, hilabeteko (1) epean, aipatutako iragarkia argitaratu ondorengo egunetik zenbatuta, adierazitako epearen azken eguneko 15:00ak arte.

Udal honetako kontratatzailearen profileen sartzeko, honako helbide hau erabili ahal izango da: <http://www.arrankudiaga.org/es-ES/Ayuntamiento/profil-contratante/Paginas/default.aspx>. Toki honetan bertan egongo dira eskuragarri baldintza-agiriak eta dokumentazio osagarria.

Udal Erregistro Orokorrean ere aurkeztu ahal izango dira proposamenak, 8:00-14:00 ordutegian, hilabeteko (1) epean iragarkia kontratatzailearen profileen argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Eskaintzak aurkezteko azken eguna larunbata edo baliogabea izanez gero, astelehenera edo hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Proposamenak postaz bidaliz gero, Posta bulegoan ezarritako data justifikatzeaz gain, berau bidali dela jakinarazi beharko da honako helbide elektrioniko honetara mezu bat bidaliz: [udala.arrankudiaga@bizkaia.org](mailto:udala.arrankudiaga@bizkaia.org)

Eskaintzaileek eskatutako baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria proposamenak hartzeko data iraungi aurreko sei egunetan, gutxienez, emango da, beti ere eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez 12 egun lehenago egindako eskariak badira.

SPKLaren 136.2 eta 3 artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan entregatzerik izan ez bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek eskaintzat aurkezteko beharrezkoa duten informazioa jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Eskaintza bateko dokumenturen bat ezin bada behar dan bezala ikusi, gorabehera hori jakinarazi eta gehienez 24 orduko epea izango du lizitatzailerak fitxategi akastunean zegoen dokumentua ikusi ahal izango den edozein formatutan aurkezteko. Geroago aurkeztutako dokumentu horrek ezin izango du aldaketarik izan eskaintzan aurkeztutako jatorrizko dokumentuaren aldean. Kontratazio-organoak ikusten badu dokumentuak aldaketaren bat izan duela, baztertu egingo da lizitatzaileraren eskaintza.

Proposamenak administrazio baldintza partikularren agiri honetan aurreikusitakora egokitu beharko dira, eta proposamenak aurkezteak, klausula edo baldintza guztiak baldintza barik onartzea dakar, inolako salbuespen edo erreserba barik.

#### 16. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA.-

Lizitazaileak itxita dauden hiru gutun-azaletan aurkeztu beharko du dokumentazioa, lizitazaileak edo ordezkatzan duen pertsonak sinatuak, klausula honetan zehazten den edukiarekin:

**A GUTUN-AZALAREN EDO 1. ZENB. ARTXIBO ELEKTRONIKOAREN** izenburua "*Administrazio-dokumentazioa*" izango da, eta honako dokumentu hauek osatuko dute:

- Erantzukizunpeko Adierazpena, 2. ERANSKINEAN dagoen EREDUAREN arabera; honetan, lizitazaileak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan aipatutako egoera baten ere ez dagoela sartuta adierazi beharko du, bere erantzukizunpean. Aitorpen horretan berriaz adieraziko du, baita ere, kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

- Lizitazailearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua, pertsona fisikoak edo banakako enpresaburuak direnean, edo Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutako merkataritza-sozietatea eratzeko eskriturarena, enpresaburu pertsona juridikoa denean.

- Korporazioko idazkariak emandako ahalordea, ordezkaritza bidez jarduten denean.

- Agiri honen 14. klausulan eskatzen den kaudimen ekonomiko-finantzarioa, tekniko eta profesionala egiaztatzea.

- Lizitazaileak kontratazio organoarekin erlazionatuko den pertsona izendatuko du, telefono zenbaki bat, helbidea eta jakinarazpenak egiteko posta elektronikoa emanez.

- Esleipen-proposamenaren xede den lizitazaileak kontratazio-organoaren aurrean egiaztatu beharko du, kontratua esleitu aurretik, jarduteko gaitasun osoa, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, gaitasun tekniko eta profesionala egiaztatzen duten dokumentuak badituela eta baliozkoak direla, bai eta kontratatzeke debekurik ez duela ere.

Administrazioarekin kontratuak egiteko eskatzen diren gaitasun- eta kaudimen-baldintzak betetzen direla egiaztatzeke une erabakigarria proposamenak aurkezteke epea amaitzen denean izango da.

**B GUTUN-AZALAREN EDO 2. ZENB. ARTXIBO ELEKTRONIKOAREN** izenburua "*Balio judizioko irizpide ebaluagarrien bidez esleitzeko irizpideei buruzko dokumentazio*"



Arrankudiagako Udala  
Bizkaia

*teknikoa*" izango da, eta eskaintzak 13.A klausulan adierazitako HAUTAKETA-IRIZPIDEEN eta Baldintza Tekniko Partikularren Agirian ezarritakoaren arabera ebaluatzeko balioko du.

Hauen arabera, ezinbestekoa izango da ondorengo aurkeztea:

13.A klausulan adierazitako balio judizioaren menpeko esleipen irizpideei buruzko memoria teknikoa.

**C GUTUN-AZALAREN EDO 3. ZENB. ARTXIBO ELEKTRONIKOAREN** izenburua *Esleipen automatikoko irizpideei buruzko dokumentazioa - Proposamen ekonomikoa*" izango da, eta baldintza-agiri honen 13.B klausulan zehaztutako esleipen-irizpideak aplikatzeari dagokionez, administrazio-klausulen AGIRIAREN amaieran 1. ERANSKIN gisa ageri den PROPOSAMEN-EREDUAREN arabera idatzitako eskaintza ekonomikoa jasoko du, behar bezala datatuta, sinatuta eta zigilatuta, eskaintza ekonomiko osoarekin, bai eta aipatutako 13.B apartatuko esleipen-irizpideei buruzko gainerako dokumentazioa ere.

Proposamen ekonomikoan sartutzat joko da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren jasanarazi beharreko zenbatekoa, atal bereizian jaso beharko dena.

Lizitzaile bakoitzak proposamen ekonomiko bakarra aurkeztu ahal izango du, eta ez da onartuko lizitazio-aurrekontua baino zenbateko handiagoa dutenak.

Lizitzaileak, banaka aurkezten bada edo aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan agertuz gero, ezin izango du aldi baterako elkarteren batean proposamenik sinatu. Arau hauek hausteak, pertsona horrek izenpetutako proposamen bat ere ez onartzea ekarriko du.

Eskaintzan letraz eta zenbakiz adierazitako zenbatekoaren artean desadostasunik antzematen bada, lehenak izango du lehentasuna bigarrenaren aldean.

Ez dira onartuko administrazioak eskaintzarako funtsezkotzat jotzen duen guztia argi eta garbi ezagutzea eragozten duten hutsegiteak, akatsak edo zirriborroak dituzten proposamenak.

## 17. TXOSTEN TEKNIKOAK.-

Kontratazio-mahaiak, B eta c gutun-azaletan jasotako dokumentazioa baloratzeko egokitzat jotzen dituen txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu.

## 18. KONTRATISTA AUKERATZEA ETA LIZITAZIOA.-

Hautaketa:

- Gutun-azalak jaso ondoren, kontratazio-mahaiak, kontratatzailearen profilean adierazitako egunean eta orduan, egintza pribatuan kalifikatuko ditu garaiz eta behar bezala aurkeztutako dokumentuak.

A gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioan akatsik edo hutsegiterik ikusten bada, bitarteko elektronikoa, informatikoa, telematikoen bidez edo idatziz jakinaraziko die, eta, gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango die lizitatzzaileei zuzendu edo konpontzeko, emandako epean dokumentazioa zuzentzen ez bada lizitatzzailea behin betiko baztertuko dela ohartaraziz.

Lizitatzzaileak behin betiko onartzeari buruzko erabakia hartu ondoren, egintza berean, kontratazio-mahaiak aurkeztutako dokumentuen kalifikazioaren emaitza adieraziko du, onartutako proposamenak, baztertutakoak eta horiek ez onartzeko arrazoiak adierazita, eta, hala badagokio, onartutako lizitatzzaileen B gutun-azala irekiko du.

- Ondoren, Mahaiak irizpide teknikoaren balorazioa egingo du, gehienez ere zazpi egun naturaleko epean. Horretarako, egoki irizitako txosten teknikoak ere eskatu ahal izango dira, onartutako lizitatzzaileek aurkeztutako proposamenak baloratu asmoz.

- Kontratazio-mahaiko mahaiburuak, kontratatzailearen profilean adierazitako egunean eta orduan, balio-judizio baten mendeko irizpideei esleitutako haztapenaren emaitza adieraziko ditu. Irizpide teknikoaren balorazioan (B gutun-azala) gutxienez ezarritako 15 puntura iristen ez diren proposamenek ez dute jarraituko hautaketa-prozesuan.

Ondoren, ekitaldi berean, prozeduran jarraitzen duten enpresen c gutun-azala irekiko da. Neurritz gaineratutako edo anormaltatutako ez diren proposamenak garrantziaren arabera sailkatuko dira. Sailkapena baldintza agiri honetan adierazitako esleipen-irizpideen arabera egingo da. Ezohiko edo neurritz kanpoko balioak direla-eta proposamena beteezina izanez gero, entzunaldia emango zaio lizitatzzaileari, egindako eskaintzaren balorazioa justifikatu dezan SPKlan aurreikusitako eran. Lizitatzzaileak egindako justifikazioak eta horretarako eska daitezkeen txosten teknikoak ikusirik kontratazio organoak uste badu ezohiko edo neurritz kanpoko balioak direla-eta eskaintza hori beteezina dela, orduan, kendu egingo du aurreko paragrafoan aurreikusitako sailkapenetik.

Kontratazio-mahaiak, formula automatikoen bidez ebaluagarriak diren esleipen-irizpideak baloratu eta, hala badagokio, esleipen-irizpideek baloratzeko txosten teknikoak ikusi ondoren, esleipen-proposamena egingo dio kontratazio-organuari.

- Dokumentazio elektronikoa irekitzeko prozesuan arazo teknikoaren bat, informatikoren bat edo Kontratazio Elektronikoaren Plataformarekiko konexioaren arazoren bat sortzen bada eta horrek irekiera-egintza etetera behartzen badu, berririkiera aurrekoaren egintza-unitatetzat hartuko da, eta data ere jakinarazi egingo da, dagokion iragarkia Kontratatzzailearen Profilean sartuta.



**Arrankudiagako Udala**  
**Bizkaia**

- Aurreko atalen arabera egindako guztia dagokion aktetan jasoko da, eta haietan prozeduraren emaitza eta gorabeherak jasoko dira. Eskaintzak kalifikatu, onartu edo baztertzeko egintzen emaitza kontratugilearen profilean argitaratuko da, lizitatzailerei behar den komunikazioa edo jakinarazpena egitea galarazi gabe, bidezkoa bada. Lizitatzaila bat baztertzeko egintza lizitatzailari jakinaraziko zaio, eta, hala badagokio, erabaki horren aurka jar daitezkeen errekursoak adieraziko zaizkio.

**Esleipena:**

Kontratazio-organoak eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailari errekerimendua egingo dio 7 egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkez dezan, bai eta jarduteko gaitasun osoa duela, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, teknikoa eta profesionala duela eta ez dagoela kontratatzeke debekuetan sartuta egiaztatzen duen dokumentazioa ere. Halaber, bidezkoa den behin betiko bermea eratu izanaren adierazpena, bai eta erantzukizun zibileko aseguru-polizaren kopia eta dagokion ordainagiria ere.

Xede horretarako emandako epean esleipendun gisa proposatutako hautagaiak behin betiko bermea edo eskatutako beste agiri batzuk aurkezten ez baditu, puntuazioari dagokionez hurrengo postuan dagoen hautagaiaren aldeko esleipen-proposamena egingo da, eta, honi, behin betiko bermea eratzeko dagokion epea emango zaio.

Eskaintza ekonomikorik onena aurkeztu duen lizitatzailari eskatutako dokumentazioa jaso ondoren, kontratazio-organoak hurrengo bost egun baliodunen barruan esleituko dio kontratua.

Kontratuaren esleipena KONTRATATZAILEAREN PROFILEAN argiaratuko da, eta interesdunei posta elektronikoz jakinaraziko zaie, lizitatzailaiek edo hautagaiak proposamenak aurkeztean izendatu duten helbidera.

Kontratazio organoak ez badu kontratua kontratazio mahaiak egindako proposamenaren arabera esleitzen, erabaki hori hartzera zergatik heldu den azaldu beharko du.

Kontratazio-organoak uko egin ahalizango dio kontratua esleitzeari, betiere esleipena egin aurretik, espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoen ondorioz. Era berean, atzera egin ahal izango du esleipen-prozeduran, kontratua prestatzeko arauetan eta esleipen-prozedura arautzeko arauetan zuzendu ezin den arauhausteren bat egin bada.

Kontratua esleituta eta esleipen-ebazpena jakinarazten denetik 4 hilabete igaro ondoren proposamenekin batera doazen agiriak interesdunen esku geratuko dira. Aipatutako epea amaitu eta hurrengo hilabetearen barruan dokumentazioa hartzen ez badute, kontratazio-organoak ez du hura zaintzen jarraitzeko beharrianik izango.

#### 19. BARDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK.-

Esleipen-irizpideak aplikatu ondoren, bi eskaintza edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen den kasuetan. Berdinketa hausteko, SPKLren 147.2 artikuluan ezarritako esleipen-irizpideak ezartzen dira.

#### 20. KONTRATUA BURUTU ETA FORMALIZATZEA.-

Kontratua, formalizatzen denean burutuko da.

Esleipenduna enpresaburuen elkarte bada, hura formalizatu zeneko eskritura publikoa aurkeztu beharko du. Honen iraupena eta kontratuarena, iraungi arte, berdina izan beharko da.

Kontratua lizitazio baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den dokumentu administratibo bidez formalizatuko da, betiere lizitzaile edo hautagaiek esleipenaren jakinarazpena jaso eta hamabost egun balioudunen barruan. Agiri hori baliozko titulua izango da edozein erregistro publikoren aurrean.

Kontratistak eskatu ahal izango du kontratua eskritura publikoz egin dadila, gastuak bere kontura joango direlarik.

Kontratua formalizatzeko dokumentuan ezin da inola ere sartu esleipen-baldintzak aldatzen dituen klausularik.

Kontratuaren formalizazioa kontratazio-organoak duen kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua ezarritako epean ez formalizatzeko arrazoiak adjudikaziodunari egozteko modukoak baldin badira, behin betiko bermetik kontratuaren aurrekontuko %3ko zenbatekoa konfiskatzeko erabakia hartu ahal izango du Administrazioak.

Kontratua sinatzearekin batera, esleipendunak Administrazio Klausula Berezien Plegua, Baldintza Tekniko Berezien Agiria eta kontratua osatzen duten gainerako agiriak sinatu beharko ditu.

### III.- KONTRATUA GAUZATZEA





**Arrankudiagako Udala**  
**Bizkaia**

## 21. KONTRATUA EGIKARITZEA.-

Kontratastak arrisku-menturak bere gain hartuta gauzatuko da kontratua.

Kontratua agiri honetan, baldintza teknikoen agirian eta udalak kontratistari kontratua interpretatzeko ematen dizkion jarraibideen arabera gauzatuko da.

Kontratista edo haren mendeko pertsoneri egotzi ahal zaizkien egintzen edo ez-egiteen ondorioz kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen bada, administrazioak beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko eskatu ahal izango du, kontratua behar den legez bete edo berrezar dadin.

## 22. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK.

Udalak onartutako baldintza-agirietan ezarritako baldintzetan kontratatutako zerbitzua ematek eratoritzen direnak gorabehera, esleipendunak honako betebeharrak izango ditu:

1. Udalari fakturak aurkeztea, hitzartutako prezioa jaso dezan.
2. Kontratutako zerbitzua ematean gertatzen diren gorabehera guztiak berehala jakinaraztea Udalari.
3. Behin betiko bermea baldintza-agirian zehaztutako moduan eta zenbatekoetan eratztea.
4. Kontratua administrazio-agiri batean formalizatzea, horretarako eskatzen zaion egunean.
5. Lan-arloan indarrean dauden xedapenak edo lan-arloko, gizarte-segurantzaren arloko eta laneko segurtasun eta higienaren arloko kontratuaren indarraldian ematen direnak betetztea, zerbitzuaren prestazioari atxikitzen zaizkion eta bere kargura dituen pertsoneri dagokienez; udala aipatutako lege-xedapenak ez betetzetik salbuetsita geratuko da.

### 6. Hizkuntza-betebeharrak:

Udal-arloekiko harremanak: Esleipendunak, bere zerbitzuak eskaintzeko orduan, Arrankudiagako eta Zolloko Udalak bere hizkuntza-jarduna arautzeko ezarrita dituen planen arabera jardungo du.

Herritarrekiko harremanak: Bi hizkuntza ofizialetan jardun beharko da, herritarrek aukeratu bezala, eta hala aukeratu duten pertsonekin komunikazioa euskara hutsean izango da.

Bateragarritasuna: Kontratuaren xedeak ez dakar dedikazio eskusiboko erregimenik ez kontratistarentzat ez esleitutako profesionalentzat; izan ere, horiek askatasunez garatu ahal izango dute beren jardura profesionala, betiere kontratu honetan jasotako betebeharren kalterako ez bada.

Hala ere, kontratistak eta, hala badagokio, zerbitzua ematera bideratutako profesionalak ezingo dute enkargurik onartu edo kargurik hartu bateraezintasun-baldintzetan. Bateraezintasun-egoera dagoela ulertuko da, legez ezarrita dagoenean ez ezik, kontratista edo, hala badagokio, zerbitzua ematera bideratutako profesionala egoera zalantzarrian jar dezaketen eskubide eta interesen arteko talka dagoenean, eta horrek haren zuzentasuna edo independentzia arriskuan jartzen duenean. Ez kontratistak ez esleitutako profesionalak ezingo dute ezkutuko interes pertsonal edo finantzariarik izan enpresa sustatzaile edo jabeengan, baldin eta enpresa horiek beren betebeharrak profesionalak ahalik eta zorrotzen betetzea arriskuan jar badezakete. Bateraezintasun horiek kontratua gauzatzeko izendatutako kontratistaren edo profesionalaren laguntzaileei eta lankide elkartuei ere aplikatuko zaizkie.

Kontratistak edo kontratua gauzatzeko izendatutako profesionalak ez dute txostenik egin behar, eta ez dute kontrol- edo ebazpen-eginkizunik izan behar interes propioa duten gaitan, ez eta laugarren graduko odol-ahaidetasuna edo bigarren mailako ezkontza-ahaidetasuna dutenen interesekoetan ere. Kontratistak eta, hala badagokio, esleitutako profesionalak zorrotz errespetatu beharko dituzte funtzio publikoaren araubideari buruz indarrean dagoen legerian lanbidearen jardun pribatuarekiko bateraezintasunei buruz ezartzen diren arauak.

Kontratistak edo, hala badagokio, kontratua gauzatzeko izendatutako profesionalak parte ez hartzeko betebeharrak egikaritzuz gero, udala konpentsatu beharko da, aparte kontratatu beharreko laguntza teknikoko zerbitzuen kostuengatik.

Oinarri hauetan ezarritako xedapenak ez betetzeak kontratua suntsiarazteko ahalmena ematen dio Administrazioari.

### 23. KONTRATUA ALDATZEA.-

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiak direla medio, SPKLren 203tik 207ra bitarteko artikuluetan berariaz jasotzen diren inguruabar, egoera eta baldintzetan, betiere, horrekin lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

### 24. ORDAINKETAK.-

Kontratuaren prezioa udal-administrazioak hautatutako eskaintzatik ateratzen dena izango da. Kontratistak eskubidea du zerbitzu erreala eta behar bezala gauzatu ordain dakion, hitzartutako prezioaren arabera, Administrazioaren kontura. Prezioa faktura bidez



**Arrankudiagako Udala**  
**Bizkaia**

ordainduko da, Administrazioak nahi dituen lanak egin eta dagokion udal-organoak onartu ondoren.

Ordainketa errazteko, hileko fakturazioa ezartzen da, dagokion ordainketarekin, betiere hilabete horretan benetan egindako orduei buruzko fakturak aurkeztuta, kontratuan eta Baldintza Tekniko Partikularren Agirian ezarritako orduak gorabehera, hilabete bakoitzean benetan emandako orduak fakturatuz.

Kasuan kasuko fakturak SPKLren 216. artikularen 4. atalean ezarritakoaren arabera onartu eta ordainduko dira. Fakturak onartzeko ezarritako epea zenbatzeko hasierako eguna kontratua osorik edo zati batean egin dela egiaztatzen duen faktura udaletxeko erregistroan aurkezten den egunaren hurrengoa izango da.

Esleipendunak faktura elektronikoa egin eta igorri ahal izango du, Faktura Elektronikoa Sustatzeko eta Sektore Publikoko Fakturen Kontabilitate Erregistroa Sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legean, bai eta berau garatzeko gainerako arauetan, ezarritako formatu eta baldintzetara egokituta.

## 25. ZIGORRAK.-

Prestazioa behar bezala betetzen ez bada, zuzentzeko betebeharrak gain, Arrankudiagako eta Zolloko Udalak kontratuaren prezioaren %20ko zigorra ezarri ahal izango du, BEZ kanpo. Kontratua behar bezala ez betetzeagatik ezarritako zigorrak ezin dira izan kontratuaren prezioaren % 50 baino gehiago.

## 26. KONTRATUA BALIOGABETZEA.-

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak SPKLren 211. eta 313. artikuluetan aurreikusitakoak izango dira, lege-testu horren 313. artikuluan adierazitako ondorioekin, eta klausuletan berariaz adierazitakoak alde batera utzi gabe, jarraian zehaztuko diren kausa bereziak, indarrean dagoen araudian ezarritako ondorioekin:

- a) Administrazioarekin kontratuak egiteko baldintzak gerora galtzea.
- b) Administrazioaren zuzendaritza- eta ikuskapen-ahalmenak oztopatzea.

c) Kontratastak kontratuaren xede den zerbitzua bertan behera uztea. Prestazioa bertan behera utzi dela ulertuko da, baldin eta prestazioa ez bada erregularitasun egokiarekin edo kontratua ezarritako epean normaltasunez gauzatzeko behar diren giza baliabideekin edo baliabide materialekin egiten. Hala ere, kasu hori gertatzen denean, Administrazioak, suntsiarazpena adierazi aurretik, egoera erregularizatzeko eskatuko dio kontratastari, errekerimendua egin eta bost eguneko epean.

d) Kontratastak, kontratua indarrean dagoen bitartean, indarrean dagoen araudian adierazitako debekuren batean edo bateraezintasunean sartzea, dagokion bateragarritasuna berehala lortu gabe.

e) Kontratua indarrean dagoen bitartean, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak edo Zergen Ikuskatzaitzak, bakoitzak bere eskumenen esparruan, arau-haustearen akta egitea kontratastari, baldin eta akta horrek zehapen irmoa ekarri badu.

f) Kontratua gauzatzean behin eta berriz huts egitea.

g) Oro har, kontratastak ez betetzea kontratu-dokumentuetan jasotako funtsezko betebeharren bat, edo, funtsezkoa ez bada, ez jartzea betetze-egoeran, eta funtsezkoa ez den ez-betetze horren ondorioak ez zuzentzea horretarako adierazitako zuhurtziazko epearen barruan.

Arrazoi horietakoren bat gertatuz gero, kontratazio-organoak kontratua suntsiarazitzat jo ahal izango du, aplikatu beharreko araudiaren arabera bidezkoak diren kalte-galeren eta gainerako efektuen kalte-ordainarekin. Betearazte subsidiarioa aukeratu ahal izango du, bete gabeko betebeharrak eginez edo kontratua gauzaten jarraituz, bere kabuz edo berak erabakitako pertsonen edo enpresen bidez, kontratastaren kontura. Bermearen zenbatekoa izango da horren guztiaren erantzule, iristen den neurrian, eta kontratastaren erantzukizun orokorrari kalterik egin gabe. Kontratazio-organoak erabakiko du kontratua suntsiaraztea, ofizioz edo kontratastak eskatuta, hala badagokio, HAKLren 109. artikuluan ezarritako erregelamenduzko moduan izapidetutako prozeduraren bidez.

## 27. KONTRATUA SUNTSITZEA.-

Kontratua betetzat joko da kontratastak honen xedea osorik exekutatu duenean, betiere kontratuko baldintzen arabera eta Udalaren nahierara.

Kontratua behar bezala gauzatu dela egiaztatzeko, kontratuaren arduradunak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Kontratuaren jarraipen egokia egiteko, administrazioak egokitzat jotzen badu, bilerak egingo dira Udaleko eta enpresa esleipenduneko ordezkarien artean, egokitzat jotzen den maiztasunarekin. Hala ere, kontratuaren arduradunak kontratuaren jarraipena egiteko behar dituen bilera guztiak deitu ahal izango ditu, baita esleipendunari horretarako beharrezko dokumentazioa eskatu ere.



**Arrankudiagako Udala  
Bizkaia**

#### **IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZINO ESKUDUNA**

##### **29. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA.-**

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuak administrazio-izaera izango du eta baldintza-agiri honen eta atxikitako gainerako agiri teknikoen arabera burutuko da. Bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, hauetan xedatutako arauak beteko dira: Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea; urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; eta, hala badagokio, Herri Administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerako arauak.

Administrazio-baldintza partikularren agiri honen eta espedienteari lotutako gainerako agiri teknikoaren artean kontraesanak egonez gero, agiri honetan xedatutakoa gailenduko da.

##### **30. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK.-**

Administrazioari dagokio kontratu hau interpretatzea, betetzeak eragin ahal dituen zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratua gauzatzearen ondorioz kontratistari egotzi ahal zaion erantzukizuna adierazi, kontratua egikaritzea eten, suntsitzea erabaki edo honen ondorioak zehaztea, betiere Administrazio Publikoen Kontratu Legearen Araubide Orokorrean eta SPKLn xedatutako mugen barruan eta hauetan zehaztutako baldintzak eta ondorioak betez.

##### **31. JURISDIKZIO ESKUDUNA.-**

Kontratu honetatik erator daitezkeen auzi eztabaidagarriak Kontratazio Organoak ebatziko ditu. Kontratazio-organoak ebatzitakoak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean zuzenean jarri ahal izango da helegitea, hala badagokio, sektore publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko

9/2017 Legearen 44. artikulutik 60. artikulura bitarteko artikuluek edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean araututakoek kontratazio arloan helegite berezia ezartzeko aukerari kalterik egin gabe.

Arrankudiaga eta Zollon, 2020ko apirilaren XXan



Arrankudiagako Udala  
Bizkaia

## 1. ERANSKINA

\_\_\_\_\_ jaun/andrea, helbidea \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_ duena, IFZ zenb. \_\_\_\_\_ norberaren izenean jardunez, edo, hala balitz, \_\_\_\_\_ ondorengoaren \_\_\_\_\_ ordezkartzan:  
\_\_\_\_\_, jakinarazpenetarako \_\_\_\_\_ helbidea \_\_\_\_\_ eta IFZ zenbakia \_\_\_\_\_ dituena, adierazten dut:

1) Kontratatzailearen Profilean argitaratutako iragarkiaren jakitun dagoela, goian zehazten diren obrak egiteko lizitazioarako deia egiten duena.

2) Aztertu eta ezagutzen dituela Baldintza Teknikoen Agiria eta Administrazio-Klausula Partikularren Agiria, eta kontratu hau zuzendu behar duen gainerako dokumentazioa.

3) Era berean, ezagutzen dituela Administrazio-Klausula Partikularren Agirian aipatzen diren legezko testuak eta araudiak.

4) Ados dagoela, bere borondatez men egiten duela eta aipatzen diren dokumentu eta testu legal zein araudi guztiak bere osotasunean eta inolako aldaketarik barik onartzen dituela.

5) Ondorengo hitzarmena ezarriko zaiela kontratu honen xede den jarduera egingo duten langileei:

.....

6) Ordezkatzen dudana enpresak, zabaldu, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen dituela.

7) Borondatez onartzen dudala gardentasun instituzionalez jorratzea lizitazio-, esleipen- eta betearazpen-prozedurei buruzko datu guztiak, harik eta amaitu arte.

8) Zerbitzuak osorik burutzeko konpromisoa hartzen duela, ondorengo eskaintza ekonomikoarekin eta epeekin:

<b>ESKAINZA BEZ KENDUTA (€)</b>	<b>BEZ (€)</b>	<b>PREZIOA GUZTIRA (€)</b>

Aipatutako zenbatekoan sartutzat joko dira zergak, tasak edo aplikagarriak diren gainerako kanonak, baita prestazioaren ondorioz sortutako beste edozein gastu, edo adjudikaziodunari baldintza-agiri honetan aurreikusitako betebeharren ondorioz sortzen zaizkion beste gastu guztiak ere.

- **PRESTAKUNTZA:**

<b>IZENBURUA</b>	<b>ERAKUNDEA</b>	<b>ORDUAK</b>

- **ESPERIENTZIA:**

<b>TOKIKO ERAKUNDEA</b>	<b>BIZTANLEAK</b>	<b>URTEAK</b>

- **HOBEKUNTZAK:**

<b>ORDUAK</b>	<b>KONTZEPTUA</b>

Tokia, data eta proposamen egilearen sinadura.

Kontaktua:

Posta elektronikoa:

Telefonoa:





Arrankudiagako Udala  
Bizkaia

## II. ERANSKINA

..... jaun/anderea, helbidea  
..... eta NAN zenbakia  
..... dituena, bere izenean edo ..... den aldetik  
(adierazi ordezkaritza ahalmenak: administratzaile bakarra, ahalduna)  
..... enpresa ordezkatzuz, helbide soziala  
....., eta  
IFZ zenb.: ..... dituena, tfnoa: ..... eta posta  
elektroniko helbidea ..... dituena

### **BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU:**

- a) Ordezkatzen duen enpresak legez eta baldintza-agiri honetan kontratatzeko eskatzen diren **baldintza guztiak betetzen dituela**, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan jasotzen diren Administrazioarekin kontratatzeko debeku egoera baten ere ez dagoela sartuta.
- b) Bere eskaintza egiterakoan kontuan hartu dituela enpleguaren babesaren, lan baldintzen, laneko arriskuen prebentzioaren eta ingurumenaren babesaren inguruan indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betebeharrak.
- c) Baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duten agiriak, kontratazio-organoak hala eskatzen duen edozein momentutan, emateko konpromisoa hartzen duela, eta, nolana ere, esleipen-proposamena bere aldekoa bada, esleipena egin aurretik emango dituela.
- d) Lizitazio honen arabera, kontratuaren adjudikazioduna izanez gero, honako hau izango dela kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaien Hitzarmen Kolektiboa: .....(*sektorea eta lurralde-eremua adierazi*)
- e) **Enpresa taldeari** buruzko datuei dagokionez, ordezkatzeko duen enpresa:  
**EZ** dagoela Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan aurreikusitako inolako egoeratan.  
**BADAGOELA** Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan aurreikusitako egoeraren batean.

### **Erantzuna baiezkoa bada:**

**EZ** du parte hartzen, ordea, banakako proposamena aurkezten duen talde bereko beste inolako enpresarekin batera, ezta Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan jasotako kasuren batean dagoen ezeinekin ere.

**BAI**, banakako proposamena aurkezten duen talde bereko beste enpresaren batekin (edo batzuekin) parte hartzen du, edo Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan jasotako kasuren batean dagoenen batekin, eta hau da enpresa:.....

❖ Adierazten du, legeak ezarritako ondorio juridikoekin, mota guztietako errekerimendu, komunikazio eta jakinarazpenak egiteko datuak ondorengok direla, lizitazio honi dagokionez:

Harremanetarako pertsona

.....

Egoitza soziala.....

PK.....Herria.....

1. telefonoa.....

Posta elektronikoko helbidea:.....

.....n, 20....ko .....ren .....(ea)n.

Sin.

Enpresaren zigilua